

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

**195/2025 Foru Agindua, ekainaren 5ekoa. Donemiliagako udal plangintzako arau subsidiarioetako Salsamendi industrialdeko hiri antolamendurako birgaitze plan bereziaren ingurumen txosten estrategikoa formulatzen duena**

Erreferentziako hiri antolamendurako plan bereziaren izapideak ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozeduraren mende daude. Prozedura hori Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen eta Lurralde antolamenduko planak eta hirigintza antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren bidez arautzen da.

Prozedura horren esparruan, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, Donemiliagako Udalaren aldetik, Donemiliagako udal plangintzako arau subsidiarioetako Salsamendi industrialdeko hiri antolamendurako plan bereziari buruzko ingurumen dokumentu estrategikoa jasotzen du, Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen bidez araututako gutxieneko edukiaren arabera, bai eta plan bereziaren zirriborroa ere.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, arestian aipatutako dokumentazioa jaso ondoren, ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko faseari ekin zion, eta hilabeteko epea ezarri zuen horretarako (21/2013 Legearen 30. artikulua eta 10/2021 Legearen 75. artikulua).

Kontsulten aldia amaitutakoan, txosten hau egin du Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, Arabako Foru Aldundiko Natura Ingurunearen Zuzendaritzak hala eskatuta.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2025eko maiatzaren 21ean eman zuen Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (23/129 espedientea).

#### **1. Plan bereziaren ezaugarrien laburpen txikia. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak**

##### **1.1. Plan bereziaren ezaugarrien laburpen txikia.**

Donemiliagako udal plangintzako arau subsidiarioak abenduaren 2ko 665/2009 Foru Aginduaren eta irailaren 26ko 472/2013 Foru Aginduaren bidez onetsi ziren, eta hirigintza-araudia 2013ko abenduaren 2ko ALHAOn argitaratu zen (138 zk.).

Aipatu hirigintza araudiaren “garapeneko planeamenduari lotutako fitxa” eranskinean “Salsamendi plan berezia” izeneko hiri lurzoru finkatugabea sartzen da. Horretarako, abuztuaren 1eko 85/1995 Foru Dekretuaren bidez behin betiko onetsitako Salsamendiko lur azpiegiturak garatzeko plan bereziaren eremuaren antolamendu xehatua egin behar dela zehazten da, plan berezi bat eginez.

Horrela, bada, Primafrío SL merkataritza sozietatearen ekimenez, Salsamendi industrialdeko hiri antolamendurako plan bereziaren irismena mugatutako lurren antolamendu xehatua zehaztea da, eta, horrekin, udal-plangintzako arau subsidiarioetan ezarritako plangintza sistema amaitzea, ondoren gauzatzeko aurretiazko eta ezinbesteko urrats gisa.

Plan bereziaren ebazpena emateko, irizpide eta baldintzatzaile hauek bete behar dira:

- Arau subsidiarioetako "Salsamendi plan berezia" hiri lurzoru finkatugabearen fitxako antolamendu jarraibideak betetzea, baita aurreko plan berezikoak ere (Salsamendiko lur azpiegiturak garatzeko plan berezia).

- Donemiliagako Udalaren zehaztapenekin bat, erregaiak hornitzeko estazioei lotutako erabilerak onartzen zituen zerbitzugunea kentzea. Beraz, aurreko Salsamendiko lur azpiegiturak garatzeko plan berezian aurreikusitako eremuak (logistika eremua eta zerbitzugunea) bateratzen dira.

- Lurzoruaren okupazioa modu efizientean haztatzea, lagapen publikoak behar bezala aplikatuta, bereziki espazio libreei, lehendik daudenei jarraipena emanda; adibidez, A-1 autobiaaren ondoan dauden espazioei.

- Arabako Lurralde Historikoko errepideei buruzko ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauaren zehaztapenak.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren eta uren legeriaren zehaztapenak.

- Primafrío SLren behar funtzionalei erantzutea.

Eta honako helburu hauek zehazten dira:

a) Hirigintza arloko helburuak:

- 1) Antolamenduan, diseinu koherentea lortu nahi izatea funtsezko trazaduretan, lurraren ezaugarri morfologikoekin eta programaren baldintza funtzionalekin.

- 2) Espazio logistikoak/industrialak eta espazio libreak irakurketa argi eta berehalakoarekin egituratzea, honako irizpide hauen arabera:

- 2.1) Eremuko fitxako eta aurreko plan bereziko antolamendu jarraibideak betetzea.

- 2.2) Perimettoa eta inguruko bideekiko loturak aztertzea, bertako trafikoari erantzina emanda.

- 3) Eremuaren sestrak eta barne zirkulazioak definitzea, bai eta horiek bide publikoekin duten lotura ere. Definizio hori egungo lurrari ahalik eta doituena izango da, ahalik eta lur gutxien mugi dadin; indusketak eta betelanak ahalik eta gehien saihestuko dira, eta zeharkako sekzioak lurzatiaren nibelazioarekin ahalik eta ondoen lotzeko ahalegina egingo da.

- 4) Lagapen espazioak lortzen direla bermatzea.

- 5) Urbanizazio eta eraikuntza atzerapenak ezartzea, Arabako Lurralde Historikoko errepideei buruzko ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauaren arabera.

b) Ingurumen eta paisaia arloko helburuak:

- 1) Espazio libreen sistema estrategikoki kokatzea, eremuaren eta inguruaren antolamendu elementu izan dadin, eta dagoen espazio libreari jarraipena ematea.


- 2) EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren hirigintza osagaiaren arabera berariazko araudiarekin bat datozen urbanizazio eta eraikuntza atzerapenak ezartzea.

- 3) Azken irtenbidean, ingurunearekin eta lurraren ezaugarri morfologikoekin koherentea den diseinua lortu nahi izatea.

- 4) Euri urak eta azaleko urak isurtzeko sare bat izatea, eremua zeharkatzen duen egungo sareekin konektatua, bai eta eremuaren iparraldetik doan sarean sartuko diren ur beltzak saneatzeko sare bereizi bat ere.

- 1.2. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa:

Jarduketa eremua, Salsamendi industria lurzorua Arabako Lurralde Historikoko Arabako Lautadako eskualdeko Donemiliaga udalerriko 2. industrialdeko 319. eta 320. lurzati pribatuetara mugatzen da.



Bertara iristerko, A-1 autobioako 385. Irteera hartu behar da, Gasteiz/Iruñerako norabidean. Biribilgune baten bidez, A-3020 foru errepidearekin egiten du bat, eta, handik, aurreko biribilguneetik 90 metro hegoaldera dagoen beste biribilgune batera iristen da. Bertatik, Vitorro kalera iristen da, eta, hala, Salsamendi eta Okiturriko industria lurzoruetara.

Iparraldean, A-1 autobideak mugatzen du; ekialdean, A-3020 foru errepideak, eta zati batean, 131-2 lurzati pribatuak —ostatu-jatetxe bat eta ibilgailuak aparkatzeko eremua—; hegoaldean, Vitorro kaleak, eta zati batean, 131-2 eta 132-2 lurzati pribatuak —azken horretan aparkaleku eremu bat dago—; eta, mendebaldean, A-1 autobioak eta Okiturriko industria lurzorua bideratzen datozen jariatze urek, hegoaldetik iparraldera.



Jarduketa eremuak 34.095 m<sup>2</sup>-ko azalera du. Geometria irregularra du, gutxi gorabehera 500 m luze da ekialdetik mendebaldera, eta 15 m-tik 110 m-ra bitarteko zabalera du iparraldetik hegoaldera. Titulartasun pribatuko 2 lurzati (2. industrialdeko 319. eta 320. lurzatiak) eta autobiarekiko paraleloa den berdegune publiko batek osatzen dute.

319-2 lurzatiak hutsik dago, urbanizazio prozesuan, eta honako hauek zeharkatzen dute: euri uren eta saneamendu uren kolektoreak, ur hornidurako sarearen hodiak eta erdi tentsioko sare elektrikoaren eroanbideak. Hainbat zutoin eta transformazio zentro daude lurzatiaren barruan. 320-2 lurzatiak erabat urbanizatuta eta eraikita dago, eta enpresa sustatzaileak (Primafrío SL) logistikari eta garraioari lotutako jarduerak egiten ditu bertan. Euri uren eta saneamendu uren kolektoreak ere zeharkatzen du.

Hortaz, kokapen eta ingurune eraldatua da.

### 1.3. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan azaldutakoaren arabera, bi aukera hartu dira kontuan guztira, eta honela laburbildu dira:

— 0 aukera edo ez jardutekoa (ez da hautatu): gaur egungo egoerarekin edo orain arteko ekintzarik ezarekin bat dator. Aukera horrekin ez litzaioke erantzungo kokalekuaren hirigintza antolamenduko eta erregularizazioko udal plangintzaren errekerimenduari, eta, beraz, Primafrío SLren beharrian operatiboen arabera jarduera eta obra berriak egitea eragotziko litzateke.


— 1. aukera (hautatua): 1995. urtean onetsitako Salsamendiko lur azpiegiturak garatzeko plan berezian zedarritu zenez geroztik, konfigurazioa dela-eta, bai lehendik ere, bai ingurunearekiko harremanean, eta aipatutako irizpideak eta baldintzatzaileak kontuan hartuta, garatu den antolamendu aukera baino ez da bidezkoa. Honako arrazoi hauengatik justifikatzen da:

- Eraikitako egungo egoera eta eremuaren morfologia, sustatzailearen eta lursailen titularra- ren beharrekin batera. Horiengatik ez da beharrezkoa barruko bide publiko berriak antolatzea, eta ingurukoekin lotura egitera mugatzen da.

- Eremuaren kokapena A-1 autobiarekiko, bai eta autobia horrekiko dituzten urbanizazio eta eraikuntza tartekak ere; horregatik, gomendagarria da eremu horren ondoan lagapen espazio libreak jartzea, autobia horrekiko atzerapen eta babes elementu gisa.

- Eremuaren kokapena jarduketa eremuaren mendebaldeko jariatze urekiko (1 km<sup>2</sup>-tik behe- rako adar arroa duen ur ibilgua). Horregatik gomendagarria da haren ondoan lagapen espazio libreak jartzea.

- Barruko bide zirkulazioa eta haren sestrak zehaztea, industrialdeko bide publikoarekin lotuta (Ventorro kalea); ahalik eta lur gutxien mugitzea eta zeharkako sekzioak eraikitako azalerekin ahalik eta ondoen lotu daitezen saiatzeari (lurzatiaren egungo nibelazioa).



Laburbilduz, hautatutako konponbideak jarduketa hauek biltzen ditu:

- Aprobetxamendua LI-1 (logistika – industria) eremu bakar batean banatzea planteatzen da, Salsamendiko lur azpiegiturak garatzeko plan berezian ezarritakoaren aldean.
- Eraikuntza isolatu eta/edo atxikiko erabilera logistiko industrialerako eraikuntza tipologia bat hartzen da.
- Espazio libreak eremuaren eta inguruaren antolamendu elementu gisa antolatzen dira, eta, horrela, autobaien ondoan dagoen espazio libreari jarraipena ematen zaio. Eremu horren tratamendua biguna izango da, soropila landatuko da eta zuhaitzen babes hesia izango du. Nolanahi ere, Arabako Foru Aldundiko Errepide Zerbitzuak ezarritako irizpideetara egokituko da.
- Lehendik dagoen bide-bilbearekiko lotura barne-ibilbide baten bidez planteatzen da; ibilbide horretan, ibilgailuak sartzen dira ekialdean eta eremuaren mendebaldean dagoen biribilgunera irteten da, bide publikoko ibilgailuen zirkulazio trinkoa hobetzeko.
- Planteatutako konponbideari esker, eremuaren fitxan zehaztutako eraikigarritasuna sar daiteke, eta, era berean, bateragarria da egin beharreko lagapenekin.

## 2. Kontsulta aldiaren laburpena

Ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozeduraren esparruan, ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egiteko fasea hasi zen, araututako prozeduraren arabera. Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarten zerrenda jarri da, eta haie-tatik zeinek erantzun duten adierazi da:

|                                                                                    |   |
|------------------------------------------------------------------------------------|---|
| URA – Uraren Euskal Agentzia eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa                 | √ |
| Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza                                | √ |
| Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza                  |   |
| Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza |   |
| Naturaren Arabako Institutua                                                       |   |
| Ekologistak Martxan Araba                                                          |   |
| GADEN – Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea                              |   |
| Eguzki talde ekologista                                                            |   |
| Hontza Natura Elkartea                                                             |   |
| GAIA elkarte                                                                       |   |
| Arabako Mendi Federazioa (Ingurumeneko Atala)                                      |   |
| UAGA – Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartasuna                                |   |
| IHOBE – Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa                                 |   |
| Aranzadi Natura Zientzien Elkartea                                                 |   |
| Arabako Kontzejuen Elkartea                                                        |   |
| SEO Bird Life                                                                      |   |
| Donemiliagako Udala                                                                |   |
| Egilazko Administrazio Batzarra                                                    |   |
| Durrumako Administrazio Batzarra                                                   |   |
| Arabako Lautadako Kuadrilla                                                        |   |
| Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua                                             |   |
| Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua                              |   |
| Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua                            |   |
| Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua               | √ |
| Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza                                    |   |
| Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzua        |   |
| Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzua                                 |   |



Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoak, laburbilduta (alegazio edo adierazpenen kopia osoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 23-129 espedientean eta [www.araba.eus](http://www.araba.eus) webgunean):

— URA – Uraren Euskal Agentziak lehenengo txosten bat eman, eta bertan zehazten du eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri diola, egokitzen joz gero gaiari buruzko txostena egin dezan, bat etorritik Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean ezarritakoarekin.

Bigarren txosten batean, jarduketa eremuaren eta plan bereziaren deskribapen labur bat egin ondoren, jabari publiko hidraulikoaren eta hari lotutako babes eremuen babesari dagokionez, adierazten du plan berezia ez dela jabari publiko hidraulikoko eremuaren barruan kokatzen, ezta ibilguen zaintza eremuaren barruan ere, eta, orduan, ez dela beharrezkoa jarduketak egiteko baimenik. Txostenak positibotzat jotzen du proiektuan errepidearen jariatze urak biltzen dituen kanalizazio baten ondoko eremu libreko zehaztea, eta bertan landatu beharreko landaredia erriberako landaretzarekin bat datozen espezieak izatea.

Bestalde, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten kokalekuen inbentarioan ageri denez lurzoruaren zati bat, txostenak positibotzat jotzen du ingurumen dokumentuan jasotzea Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea eta 4/2015 Legea garatzen duen abenduaren 26ko 209/2019 Dekretua betetzeko beharra.

Saneamenduaren aldetik, txostenean gogorarazten da hondakin urak udal saneamenduko sarera lotzea lehentasunezkoa izango dela.

Azkenik, berriz aipatzen da aurreikusitako jarduketek ez dutela arroko erakundearen nahitaezko baimenik behar; hondakin urak udal-saneamenduko sarera lotzea lehentasunezkoa izango dela, eta ez daudela baimenduta lurra edo euri uren sareak kutsa ditzaketen isurketak, zuzenekoak zein zeharkakoak, nahitaezko baimenik ez badute.

— Ebroko Konfederazio Hidrografikoak txostena egin du URA – Uraren Euskal Agentziak eskatuta. Lehenik eta behin, Uren Legearen testu bateginean (uztailaren 20ko 1/2021 Legegintzako Errege Dekretua) eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduan (urtarrilaren 11ko 9/2008 Errege Dekretua) jasotako eremuen kasuan kontuan hartu behar diren jarraibideak biltzen ditu txostenak, proiektua gauzatzearen ondorioz jabari publiko hidraulikoko ondasunetan kokatzen diren jarduketei eta zaintza eremuan (zortasun eremua, lehentasunezko fluxu eremua eta uholde eremuaren barruan dagoena) egiten diren jarduketei dagokionez. Ondoren, plana deskribatu ostean, txostenak zenbait gogoeta jasotzen ditu ingurune hidrikoaren gaineko eraginei buruz, honako alderdi hauei dagokionez: gainazaleko hidrologia (100 metrotik gorako distantziara dagoen sare osoa), hidrogeologia, ur masen egoera, istripu larrien edo hondamendien arriskuekiko kalteberatasuna, ingurumena babesteko figurak, ingurune hidrikoaren gaineko inpaktuak (jariatze urekiko interakzioa), aurreikus daitezkeen inpaktuak minimizatzeko neurriak eta ingurumena zaintzeko plana.

Laburbilduz, sustatzaileak zer alderditan eragin behar duen adierazten da:

- Ingurune hidrikoaren inbentarioa.

- Ur baliabideen etorkizuneko eskariak zenbatetzea, ur hornidurako, saneamenduko eta arazketako sistema egokiak kontuan edukita. Gainera, ur baliabideen kontsumoa handituko bada eta azaleko edo lurpeko uren emakida berria behar bada, edo lehendik emandako emakida baten ezaugarriak aldatu behar badira, arroko erakundearen ur komisariari eskatu behar zaio (Jabari Hidraulikoaren Erregelamendua).

- Urbanizazio prozesuak uholde araubideko ur ibilguetan eta korronteen araubideko uretan izan ditzakeen eraginak aztertzea, lurrak urbanizatzeko prozesuaren ondoriozko jariatze uren aldaketarekin zerikusia duten balizko inpaktuak identifikatzea, eta obren fasean kontu handiz ibili behar dela adieraztea. Arreta berezia jarriko zaie ur ibilguei (Orlachi erreka, Ametzaga erreka,

Ametzaga errekaen bi ibaiadar), baita jariatze urei eta sare hidrologikoko solido esekiei ere, eta, hidrokarburoak edo beste substantzia kutsatzaile batzuk isurtzearen ondoriozko ustekabeko edozein kutsadura mota saihestuko da.

- Eraikuntza fasean isurketak kontrolatzeko eta uren kutsadura prebenitzeko neurriak ezartzea.
- Prebentzio, zuzenketa eta/edo konpentsazio neurriak planteatzea eta hondar inpaktuak baloratzea, bai eta ingurumena zaintzeko plan bat txertatzea ere.

- Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 245. artikulua eta hurrengoak betez, jabari publiko hidraulikoaren kutsadura edo degradazioa eragin dezakeen jarduera oro egiteko, eta, bereziki, ur kontinentalak kutsa ditzaketen urak eta hondakin produktuak isurtzeko, arroko erakundearen administrazio baimena behar da.

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazten du dokumentazioa aztertuta ez dela ikusten kultura ondarean eraginik izango duenik.

- Arabako Foru Aldundiko Ondare Historiko-Arkitetktonikoaren Zerbitzuak jakinarazten duenez, espedientea aztertuta, plan bereziaren eremuan ez dago ondare historiko-arkitektonikoaren elementurik.

#### **4. Ingurumen balorazioa. Ingurumen inpaktu nagusiak**

Donemiliagako udal plangintzako arau subsidiarioetako Salsamendi industrialdeko hiri antolamendurako plan bereziaren eremua industria eremu bateko hiri lurzoruan dago. Ez da naturagune babestua, ezta katalogatutako fauna espezieen interes bereziko eremua ere. Onura publikoko mendiei, igarobide ekologikoei eta katalogatutako paisaiei ere ez lieke eragingo.

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan bertan adierazten den legez, zehazki ingurumen dokumentu estrategikoan, kokalekuaren ezaugarriak kontuan izanda, ez da espero behin betiko onesprenak ingurumenean ingurumen ondorio negatibo esanguratsu berririk eragitea. Modu positiboan balioesten da jabari eta erabilera publikoko espazio libreen sistemako berdeguneak mugatzea autobiarekiko mugaketan — lehendik dagoen espazio libreari jarraipena ematen zaio — eta mendebaldeko jariatze uren mugaketan. Positiboki baloratzen da horien tratamenduari ere, paisaia integrazioa sustatzeko eta industria eremuaren ikusgarritasuna arintzeko. Hala ere, egokitza jotzen da ingurumen integratiorako eta espazio libre horien tratamendurako neurriak hirigintza araudian txertatzea, txosten honen hurrengo apartatuan jasotzen den bezala (ingurumen baldintzatzaileak), zuhaitz autoktonoak ezarrita.

Era berean, kontuan hartu behar dira plan berezia ezartzeak eragingo lituzkeen ondorio aurreikusgarriak, eraikuntza eta urbanizazio obrak gauzatzeak eragingo lituzkeenak; adibidez, baliabideen kontsumoa (materialak eta energia), emisioak atmosferara, lurzorura eta bertako elementu hidrografikoetara (sare hidrografikora isurtzen diren industria eremukoko jariatze urak), zarata edo eraikuntza hondakinak sortzea. Eragin horiek aldi baterakoak izango dira eta obrak amaitu bezain laster desagertuko dira, baina beharrezkoa izango da obrak gauzatzeko jardunbide operatibo egokiak hartzea eta, kasua bada, prebentzio eta babes neurri egokiak.

#### **5. Ingurumen baldintzatzaileak**

Ingurumen dokumentu estrategikoak, II.12 apartatuan (ingurumenean eragin negatiboak prebenitzeko, murrizteko eta zuzentzeko neurriak), ingurumenari dagokionez egokitza jotzen diren zenbait neurri jasotzen ditu. Horien helburua hiri antolamendurako plan bereziaren ondorio negatiboak prebenitu, murriztu eta zuzentzea da. Neurri horiek proiektuaren plangintza eta idazketa fasean, geroko eraikuntza fasean eta etorkizuneko jardueren garapenean ezarri beharreko irtenbide eta ekintzak dira. Ingurumen integratzioko neurri horien osagarri, Donemiliagako udal plangintzako arau subsidiarioetako Salsamendi industrialdeko hiri antolamendurako plan bereziaren hirigintza dokumentuak honako hauek hartu beharko ditu kontuan, berariazko araudian sartzeko:

A) Ingurumen dokumentu estrategikoan (II.12 apartatua) jasotako ingurumen integratzioko neurriak hiri antolamendurako plan bereziaren hirigintza dokumentuaren araudian sartu behar direla uste da (2. dokumentua: hirigintza arauak eta ordenantza erregulatzaileak), bereziki jabari

eta erabilera publikoko espazio librean sistemako berdeguneen tratamenduari dagokionez, eta lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten kokalekuen inbentarioan jasotako lurzatiari buruzko sektoreko legeria betetzeari dagokionez. Zuhaitz eta zuhaixka espezie autoktonoak landatuko dira: *Populus nigra*, *Fraxinus excelsior*, *Acer campestre*, *Quercus faginea* eta erkameztiaren zuhaixka osagarriaren berezko zuhaixka espezieak.

B) Halaber, obrak gauzatzeko aldian kontuan hartu beharreko baldintza hauek ezartzen dira, hiri antolamendurako plan bereziaren hirigintza dokumentuaren araudian sar daitezen:

— Ezin da zerbitzugunerik, makineria parkerik eta kutsagarriak izan daitezkeen produktuak metatzeko eta biltegitratzeko gunerik ezarri jarduketa eremuaren mendealdeko jariatze ur bideratuetatik gertu. Nahitaezko prebentzio eta zuzenketa neurriak ezarriko dira, ustekabeko isurketek eraginik izan ez dezaten, bereziki makinak mantendu behar diren uneetan, eta ingurunean hondakinik egon edo abandonatu ez dadin. Ildo horretan, gogorarazi behar da, kokapena kutsadurarekiko kalteberatasun txikia edo ez duen eremu baten gainean badago ere, interes hidrogeologikoko eremu baten barruan mugatuta dagoela.

— Lubrifikatzaileak edo erregaiak biltegitratzeko ontzi itxiak, biltegi iragazgaitzak edo beste-lako sistema alternatibo batzuk gaitu beharko dira, eta debekatuta egongo da jada erabilitakoak isurtzea; ondoren, baimendutako kudeatzaile bati eman behar zaizkio. Debeku hori beste haue-tara ere hedatzen da: hormigoi hondakinak, eraikuntza materialak, asfaltoak, lurrak eta abar; horiek guztiak hondakindegia edo zabortege baimenduetara eraman beharko dira. Eraikuntza eta eraipen hondakinak sortzen badira, Eraikuntza eta eraipen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko den ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak ezarritakoaren arabera kudeatu beharko dira.

C) Uraren Euskal Agentziako Plangintza eta Obra Zuzendaritzak eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura honen kontsulta fasean egin-dako txostenen zehaztapenei kasu egin beharko zaie, eta, bereziki, isurketei, ur hornidurako, saneamenduko eta arazketako sistemei, ur baliabideen kontsumoari eta Jabari Hidraulikoaren Erregelamenduaren 245. artikulua eta hurrengoak betetzeari dagokienez.

Azaldutako guztian oinarrituta, Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko foru diputatu gisa eman zaizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Donemiliagako udal plangintzako arau subsidiarioetako Salsamendi industrial-deko hiri antolamendurako birgaitze plan bereziaren ingurumen txosten estrategikoa egitea.

Bigarrena. Ingurumen txosten estrategikoa nahitaezko txosten loteslea izango da, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75.1 artikulua arabera.

Hirugarrena. Ingurumen txosten estrategikoa indarraldia galduko du eta ondorioak sortze-ari utziko dio baldin eta ALHAOn argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita lau urteko epean plana edo programa egiten edo onesten hasi ez badira, Euskadiko Ingurumen Administra-zioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75.5 artikulua betez. Kasu horretan, lege horren 75.6 artikulua arabera, sustatzaileak berriz ere hasi beharko ditu planaren edo proiektuaren ingurumen inpaktuaren ebaluazioaren izapideak, salbu eta indarraldia luzatzeko eskatzen badio ingurumen organoari. Kasu horretan, ingurumen organoak, hala badagokio, ingurumen txosten estrategikoaren beste indarraldi bat emango du, erregelamenduz ezarriko den moduan.

Laugarrena. Agintzea ingurumen txosten estrategiko hau ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 5a

*Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko foru diputatua*  
**SARAY ZÁRATE FERNÁNDEZ DE LANDA**

*Natura Ingurunearen zuzendaria*  
**MARIA JOSÉ MADEIRA GARCÍA**